

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jon Lopategi Lauzirika

*Muxika,
Bizkaia
(1934-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Muxikako Zababalde "Zabale" auzoko Aldauria "Aldori" baserrian jaio zen 1934. urtean. Ama ondoko auzoko batekoa zen, Besangizekoa; aita, ordea, mungiarra. Hamar neba-arrebatatik seigarrena eta lehen semea izan zen. Gerra aurrean jaio zenez, lehen urteak gogorrak izan ziren: erreketek sartu, behi uztarria hartu eta Mungiara joan ziren Barakaldora eta Bilbora joan aurretik. Gerraostean, hamabi urte izan arte, Kurtzeroko eskolara joan zen maistra azpeitiar batekin Tolosako sakramentinoetara joan arte. Batxilergoa, nobiziatua, filosofia eta teologia apur bat ikasi ostean, botoak hartzekotan zegoela, etxera bueltatu eta soldadu joan zen. Gerora, Gernikako [Dalia](#) lantegian, pentsu-saltzaile eta bertso irakasle moduan aritu zen irakasle. Izan ere, Jon bertsolari txapeldun bezala da ezaguna denontzat. Soldadutzatik bueltan hasi zen bertsotan Muxikako [Iturri](#)gaz eta herriko beste askorekin batera. 1962. urtean, lehen txapela irabazi eta gero hasi zen Jon Azpillagagaz batera Euskal Herriko ehunka plazatan abesten; batez ere, Gipuzkoako Goierrin eta Bizkaiko Txorierrin. 1962, 1964, 1967 eta 1987ko Bizkaiko bertsolari txapelketak eta 1989ko Euskal Herriko txapelketa nagusiak eskuratu zituen, besteak beste. Frankismoko garai gogorrenetako plaza gizona izan zen. Debekuak debeku, sekula ez zioten abesteari utzi eta astebetzez Basauriko kartzela ezagutzea ere egokitu zitzaion.

Zintak

MUX-053

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-23
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

MUX-054

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-23
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

MUX-057

- **Proiektua:** Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data:** 2013-11-30
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Aita ezkontzeko Ameriketatik bueltatu

- **Erref:** MUX-053/002
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama Besangizkoa eta aita Mungiakoa. Ameriketan zen orduan aita, baina amak ezkontzeko Euskal Herrira itzultzeko agindu zion. Hamar seme-alaba izan zituzten.

2. 3. solairutik lurrera erori

- **Erref:** MUX-053/005
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:07:02. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Frontea zela eta, Mungian eta Bilbon ere bizi izan ziren Jon, gurasoak eta arrebak. Bilbon bizi zirela, 3. solairutik erori zen Jon beheraino, eta berrogeita zortzi orduz konorterik gabe gelditu zen. Hiru arreba zaharrenak Iparraldera joan ziren bizitzera, hango laguntzak zirela eta.

3. Gernikako bonbardaketa estolda-zuloan

- **Erref:** MUX-053/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:09:53. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gernikako bonbardaketa gertatu zenean, estolda-zuloan ezkutatuta egon ziren, ilunpean. Gauean, Gernikako sua ikusten zuten herritik. Txikituta utzi zuten dena.

4. Azpeitiko maistra

- **Erref:** MUX-053/009
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerraosteko eskolara joan zen Jon. Azpeitiko maistra zuten, eta neskak eta mutilak bananduta egoten ziren. Maistra euskalduna bazen ere, erdaraz egiten zien. Behin Jon zigortu egin zuen hizketan ari zelako.

5. Eskolan "viva España!" oihukatu behar

- **Erref:** MUX-053/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:15:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Neskek beste maistra bat zuten. "Viva España" esan behar izaten zuten eskolara sartu orduko.

6. Fraidetzarako ikasketak Tolosan

- **Erref:** MUX-053/012

- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:18:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Sei urtez egon zen herriko eskolan, eta ondoren Tolosara joan zen fraide ikasketak egitera. Hamar urtez egon zen han. Oporrik ez zuten bertan. Urte gogorak ziren haiek, eta lehenengo hiru urteetan gosea pasa zuen.

7. Fraide-eskolatik ezin etxera idatzi

- **Erref:** MUX-053/013
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:18:53. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Fraide eskolan oporrik ez zutenez izaten, bost urtean ez zen etxera itzuli. Gurasoak joaten ziren urtean pare bat aldiz bisitan. Gutunak erabat kontrolatzen zituzten eskolan, bidalitakoak eta baita jasotakoak ere. Hasiera batean dena erdaraz egiten zuten, baina gero familia abertzaleetako semeak elkartu eta euskara lantzen hasi ziren.

8. Hamar urteren buruan, etxera

- **Erref:** MUX-053/015
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:20:19. **Bukatu:** 00:22:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Fraide-eskolan batxiler moduko bat ikasten zen bost urtez, eta gero filosofia eta teologia ikasi zituzten. Hogeita bi mutikotatik bost gelditu ziren eskolan jonek alde egin zuenean.

9. Donostian Francoren goardietan

- **Erref:** MUX-053/016
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:24:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Fraide-eskolatik atera eta soldadu joan zen Jon. Urterik onenak izan omen ziren, aske sentitzen baitzen. Francoren goardiak egiten zituen bere taldeak.

10. Etxean esku zabalik hartu zuten

- **Erref:** MUX-053/017
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Fraide-eskolatik bueltan, etxean irrifartsu jaso zuten, esku zabalik.

11. Maltan egotetik Apatan pentsua saltzera

- **Erref:** MUX-053/018
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:26:00. **Bukatu:** 00:28:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

Soldadutzatik bueltan Maltara joan zen. Bost urte eman zituen Italian. Han zebilela, bertsotan hasi zen, eta 1962an Bizkaiko txapeldun izan zen. Handik gutxira, Durango ondoan Azpillagarekin bertsotan ari zela, pentsua saltzen aritzeko eskaintza egin zioten.

12. Lehen bertsoak soldadutzan

- **Erref:** MUX-053/020
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:30:46. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Soldadutzako kanpamendu batean zeudela, larunbat gau batean bertsotan hasi ziren. Hernaniko eta Aiako bi gizoni bertsotan erantzuten hasi zitzairen orduan. Soldadutzatik bueltan, koplaka hasi eta larunbat arratsetan tabernetan bertsotan hasi zen beste hainbatekin.

13. Bizkaiko txapela lehen aldiz

- **Erref:** MUX-053/022
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:34:29. **Bukatu:** 00:36:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Anaia eta osaba Ameriketatik bueltatu ziren eta Mungiako kanporaketan parte hartzeko konbentzitu zuten. Irabazi egin zuen. Gernikako finalaurrekoan, berriz, ez zen sailkatu. Sailkatu ez izanak amorratuta, hurrengo urtean parte hartu, eta Bizkaiko txapela irabazi zuen 1962an.

14. Bizkaiko Txapela beste hiru aldiz

- **Erref:** MUX-053/023
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:36:03. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1964. urtean Ondarroan txapela irabazi zuen, eta 67an Durangon ere bai. Urte batzuetan ez zen Bizkaiko Txapelketarik egon, baina 87ko txapelketan ere garaile izan zen. Euskaltzaindia izan zen txapelketa haietako antolatzaile.

15. Bertsolaritza Francoren garaian

- **Erref:** MUX-053/024
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Francoren garaian bertsotan aritzeko aukerarik ez zuten izan, eta prestakuntza asko mugatu zuen horrek urte haietan. Bizkaia mailan Azpillaga eta Mugartegi zebiltzan.

16. Azpillagarekin plazaz plaza

- **Erref:** MUX-053/026
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:38:17. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Hasiera batean Iturri bertsolariarekin hasi zen bertsotan, baina gero Azpillagarekin hasi eta leku gehienetan elkarrekin aritzen ziren bertsotan. Urte batean 150 plaza egin zituzten elkarrekin.

17. Bertso saio gehienak Goerrin

- **Erref:** MUX-053/027
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:41:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Jonen autoan joaten ziren bertso saioetara. Mutrikun Azpillaga jaso eta Goierri aldera joaten ziren, saio gehienak Gipuzkoan baitziren.

18. Goierri eta Txorierri, bertso saioetan pareko

- **Erref:** MUX-053/029
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:43:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bizkaian Txorierri aldean egiten zituzten bertso saio gehienak. Gipuzkoako Goierriren pareko.

19. Astebete preso, isuna ez ordaintzeagatik

- **Erref:** MUX-053/031
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Saio gehienak librean egiten zituzten, gaiak batez ere bazkarian edo bazkalostean izaten ziren. Bertsotan esandakoarekin kontuz ibili behar zuten. Behin astebete pasa zuen preso, bertso saioagatik jarri zioten isuna ez ordaintzegatik.</p>

20. Txapelketarik ez denbora batean

- **Erref:** MUX-053/033
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:49:55. **Bukatu:** 00:50:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Bizkaiko Txapelketarik ez zen egin 60. hamarkadatik 89ra arte. Euskal Herrikoa 86an ospatu zen. Lizasok irabazi zuen txapela. 89koan, aldiz, Jonek.

21. Buruz burukorik ez egitea erabaki

- **Erref:** MUX-053/035
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:51:02. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1982an, aurretiaz ez egitea adostu bazuten ere, Txapelketa Nagusiko bi finalistekin buruz burukoa egitea erabaki zen. "Aizak hi mutil mañontzi" kantatu zuen.

22. Doinu berriak Amurizak ekarri

- **Erref:** MUX-053/037
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:57:23. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Doinu berririk ez zen egoten garai batean, Amuriza izan zen berritzaileena arlo horretan. Neurriei dagokienez, zortziko handia erabiltzen zen batez ere.

23. Bittor, Lopategi bertsolariaren aholkulari

- **Erref:** MUX-057/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:00:12. **Bukatu:** 00:01:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Pentsu saltzen ibiltzen zen Lopategi, eta hilean behin bisita egiten zion Bittorri. 1964an ezagutu eta lagun egin ziren. Aberasgarria zen harekin egotea. Denetatik zekien, aberatsa zen sentimentuz eta jakituriaz. Bertsotan eten barik hasi zenean, gustatzen zitzaion politikaz eta abar janztea, eta horretarako aholkularirik onena Bittor zuen. Bisitatu ere askotan horregatik egiten zuen, halako edo bestelako gertaera aztertzeko eta interpretatzeko.</p>

24. Hamalau urteko mutikoa Bittorren baserrian trebatzen

- **Erref:** MUX-057/004
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:06:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Aholkuak jasotzen zituen Bittorrengandik, ez politikaz bakarrik, baita hizkuntzaz edo kulturaz ere. Azpillaga plazarako lagun ezin hobeia izan den bezala, aholkulari gisa Bittor onena. Baserri kontuetan denetik zekien, behi zein baratz. Behin Mungia aldeko hamalau urteko mutiko bat ekarri zion Bittori baserriko lanetan trebatu zezan. Sei hilabete egin zituen baserrian.</p>

25. "Otxandioko profeta haundi bat dogu Bittor Kapanaga"

- **Erref:** MUX-057/006
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:07:09. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Bittor maixu haundia zen sentimentuak administratzen. Eta lagun eta aholkulari aparta. Omenezko bertsoa." ... Otxandioko profeta haundi bat dogu Bittor Kapanaga", amaiera.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com